



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

EKINTZAILETZAREN INGURUKO TREBAKUNTZA ETA BALORAZIOA SOZIALA HELBURU DITUZTEN JARDUERAK

AMAIERA TXOSTENA OSATZEKO GIDA

APLIKATIBOAN OSATU:

- Proiektuaren amaierako txostena eta eranskinak.
- Zereginak: amaiera data, orduak, egoera eguneratu (amaituta dauden zeregin guztiek egoeran "amaitua" izan beharko dute.
Lehenago sartu ez diren zereginak ere jarri beharko dira.

Egitasmoaren kostuak: Gauzatutako kostuak eta finantzaketa plana.
- Egitasmoko kostuen frogagiriak eta beraien ordainagiriak eskaneatu eta erantsi.
- Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da.

PARTAIDEAK

(Barrukoak, Kanpokoak,)

Proiektura egotzitako ORDU ERREALAK eremua eguneratu eta gehitu, hala badagokio, lehenago sartu ez diren partaideak.

BARNE PERTSONALAREN ORDUEN ADIERAZPENA

Orduen txostenak, parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldiaren eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta, erantsiko dira. Hauek proiektuan lan egin duen persona bakoitzarengatik eta bere arduradunarengatik sinatuta egongo dira.

Pertsona bakoitzeko erantsi beharko da:

- 2018. urteko 10T.
- Langile bakoitzaren hileko lan kostu zehaztuaren zerrenda: kostu gordina (kontzeptuka banakatuta) eta enpresaren kargurako gizarte segurantzak (dokumentua nominen aplikaziotik lortzen da).
- Hilabete guztien nominak eta nominen ordainagirien kasuan, proiektuan urte bakoitzean lan egindako 1go eta azkeneko hilabetekoa.
- TC1 eta TC2-ak eta hauen ordainagirien kasuan, proiektuan urte bakoitzean lan egindako 1go eta azkeneko hilabetekoa.

(Langile autonomoen kasuan, TC1/TC2 agirien ordeztu, Autonomoen Araubideko kotizazio-buletinen kopia. Kooperatiba-sozietateen kasuan, kooperatibako bazkideen kotizazio-ziurtagiria, Gizarte Segurantzako dagokion erakunde laguntzaileak emana).

KANPO PERTSONALAREN ORDUEN ADIERAZPENA

Eranskin honekin batera orduen txostenak, parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldiaren eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta, erantsiko dira. Hauek proiektuan lan egin duen kanpoko entitateen persona bakoitzarengatik eta bere arduradunarengatik sinatuta egongo dira.

NOLA ERANTSII GAUZATUTAKO KOSTUEN FROGAGIRIAK

Kostuen frogagiriak eta beraien ordainagiriak eskaneatu eta erantsiko dira

- Barne Pertsonalaren kasuan, pertsona bakoitzeko dokumentu bat erantsiko da. Dokumentu horrek pertsona bakoitzeko eskatzen den dokumentazio guztia barneratuko du.

Aparteko dokumentu batean TC1 eta TC2 guztiak eta beraien ordainagiriak erantsiko dira.

Gainerako kostuak: Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin pdf dokumentu bat erantsiko da. Bertan faktura/frogagiri bakoitza bere ordainagiriarekin batera agertuko da, 7. eranskinean jarritako hurrenkera jarraituz.

15.000 EUROTİK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Entitate onuradunak diru-laguntzetan sartzen diren gastu batzuk egin baditu, **15.000 euro edo hortik gorakoak** (BEZa kanpo), ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, eskatutako hiru eskaintzen artean egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar du. Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua diru-laguntza eskatu aurretik egin ez bada.

PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Jasotako laguntzaren eta sustapenaren publizitate egokia (irudi instituzionala, leloak.... sartuz dokumentuetan, euskarri elektronikoetan, komunikazio hedabideetan, etab.) biltzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi behar da, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuak proiektuari emandakoa.

ZERGA ETA GIZARTE ZEGURANTZAKO BETEBEHARRAK BETETZEA

Entitatearen zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak egiaztatzea GFAko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuaren esku geratu zen, horretarako baimena eman bazion erakundeak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izanez gero. Enpresak Gizarte Segurantzaren ordezkio sistema izango balu, berarekiko betebeharrak betetzen dituela azaltzen duen egiaztagiria erantsi.

Proiektuaren dokumentazioa

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak erantsiko da ere.

Euskera

Diruz lagundutako proiektuetako behin betiko dokumentu guztiek euskarazko bertsioa izango dute eta hori GFAko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuan entregatuko dela bermatu behar da. Eta proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazioa eta hedapen jardueretan bi hizkuntza ofizialen erabileraren ebidentziak jaso behar dira.

Genero ikuspegia

Proiektuaren diseinu, garapen eta emaitzetan genero-ikuspegia txertatzearen informazioa aurkeztu, eta baita proiektuaren komunikazio eta argitalpenetan hizkeraren erabilera ez sexista betetzearen ebidentziak ere.